

# Batasunaren eragile

Arantxa Urretabizkaia

Idazlea / Escriptora / Escritora

Behin baino gehiagotan esan eta idatzi dut nire belaunaldikook euskal le-tren mundura heldu ginenean, ez genuela ezer. Borobila da esaldia eta beraz, susmagarria.

Esaldi horrek ezkututzen du gutxienez zerbait bagenuela, alegia, gogoia, nahia, borondatea eta horiekin batera, tradizio bat, nahi bezain urria, baina tradizioa. Esaldiak agerian uzten du, berriz, gaur normaltzat dugun ia guztia falta zitzaigula. Euskaraz idatzi nahi genuen, baina euskara ez zen bat, ez ze-goien euskaldun guztiontzat erabilgarri izango zen eredurik. Bakoitzak berea erabiltzen zuen, etxean ikasitakoa, kasu gehienetan.

Edozein hizkuntzalarik esango dizu euskalkien arteko desberdintasunak txikiak zirela eta direla, baina alfabetatu gabekoentzat txikitasun objektibo hori izugarria izan zitekeen. Kontu hauetan hasi nintzenerako jarria zegoen gaur ezagutzen dugun batasunaren zimendua, baina nik ez nuen horren berri. Gipuzkeraz alfabetatu nintzen ni, Maria Dolores Agirrerren eskutik.

Ez genuen irakurlerik. Gerra aurreko idazleak bezala, ehunka zenbatzen ziren gure balizko irakurleak. Askotan aipatzen genuen, gure artean, momentu hartan ugaltzen ari ziren ikastolek sortuko zituztela literatura guztiek behar dituzten irakurleak.

Bizpahiru ziren guk egindako lanen oihartzuna zabal zezaketen aldizka-riak, *Zeruko Argia*, *Anaitasuna*, *Egan*. Ez genuen egunkaririk ez telebistarik. Ezta gure lanak aztertuko zituen aditurik. Gure artean eztabaidatzen genituen honen edo bestearen lanak.

Bistan da ezer gutxi genuela: gehienez jota ere gogoia eta handik bostur-teko batzuetara sendotuko zen hizkuntza ereduaren hastapena. Baina *ez genuen ezer* esaterakoan beste zerbait ezkututzen da. Balio izugarritzko pertsonak geni-tuen eta haien artean Koldo Mitxelena, Gabriel Aresti eta Ibon Sarasola.

Ibon ezagutu nuenean, 1969an, ingeniari-tza ikasketak bukatzen ari zen eta poema liburu bat argitaratu berri zuen. Sasoi hartan ez ninduen harritu bi aurpegi hain desberdinen loturak, baina gerora ikasi dut batak eskatzen duen zorroztasuna, Ibonek bere hizkuntza lanetan hainbestetan frogatu duena, eta besteak eskatzen duen gogoaren hegada, nekez datozela bat pertsona baka-rrarengan. Hori da Ibonen meritu askoren artean azpimarratu nahi dudana lehena, inor gutxi bezala zirkulua laukitu zuela.

Mitxelena, Aresti eta Sarasola, hiruak azaltzen dira 1968an Arantzazun Euskaltzaindiak antolatutako jardunaldia islatzen duten argazkietan. Sasoi

hartan ez banuen bileraren berri, are gutxiago nekien zer nolako liskarrean sartzen ari nintzen Ibonen iritziekin bat egin nuenean.

Une hartako Ibon, liburu bati lotutako gizon gaztea zen niretzat. Hain-beste urteren buruan, atzera begiratzen badut, irudi bat datorkit gogora: Ibon, Axularren *Geroa* besapean duela eta inguruan hiruzpalau ikasle saiatu eta ez-jakin.

Horixe egiten genuen astero, Axular irakurri eta bertatik ikasten saiatu. Azpimarratzen genuen zati bat, konstante bila. Aditzak, hiztegia, sintaxia. Kontatzen genion Iboni aurkitutakoa eta hark onesten edo ezeztatzen zuen balizko eredia, beti ere argibideak emanez, sarritan irizpide horiek nik eza-gutzen ez nituen egileen lanetan oinarriturik.

Sistema horrekin sartu ginen euskara batuaren mundu ekaiztsuan, gauzak gerora uzteak zituen kalteak irakurriz. Ni behintzat ez nintzen orduan horretaz jabetu, baina Axularren mezu nagusiak zerikusia zuen euskararen etorkizunarekin: batasuna premiazkoa zen, ezin genuen etorkizunaren eskutan utzi.

Egun haietan idatzi zuen Koldo Mitxelenak euskararen batasuna ezinbestekoa zela, hil ala bizikoa. Euskaltzaindiak Mitxelenaren eskutan utzi zuen batasunaren ontziaren lema eta hor abiatu zen oraindik ondo kontaktu ez den liskarra eta, haren ondoren, gaur guztiok onesten dugun hizkuntza eredia.

Batasuna aldarrikatzen genuenok inguruko hizkuntzek aspaldi egindakoa nahi genuen euskararentzat: araudi bat, lurralde guztietako euskaldunentzat baliagarri izango zen eredia. Kontrakoek euskalkien tradizioa aldarrikatzen zuten. Bitartean, hasiak ziren ikastoletarako testu liburuak argitaratzen, baina Bermeorako balio zuena ez zen erabilgarri Donostian, ezta Donostiakoa Beasainen ere.

Eztabaida, ordea, ez zen inondik ere zibilizatua izan eta berehala frogatu genuen hamaika aldiz frogatutakoa: ze zailtasunak ditugun adostasunak lortzeko eta zer nolako erraztasuna desberdin pentsatzen duena etsai bilakatzeko.

2013aren udan emandako elkarrizketa batean, modu honetan aztertzen du Ibon Sarasolak batasunaren inguruko liskarra:

Nik uste dut batez ere belaunaldien arteko liskarra izan zela. Bi belaunaldi zeuden, bat tradizionala, nolabait esateko, eta bestea guk gazteok edo garai hartan gazte ginenok osatzen genuena.

Badaude datu batzuk. 1972-73ean, beraz, Arantzazutik 5/6 urtetara, 101 liburu argitaratu ziren. Horien artean 73 batuan publikatu ziren. Gainera, desglosea eginda, 101 liburu horiek 65 idazlek idatzi zituzten, eta horien artean 35 urtetatik beherako guztiek batuan idazten zuten. Baina 50etatik beherako ehuneko 91ak, batuaz idazten zuen. Hortik gora, berriz, 50 urtetatik gorako pertsonen ehuneko 27a bakarrik batuaz eta 75 urtetatik gora, ehuneko 16ak bakarrik batuaz. Beraz, hor adina da nire ustez erabakiorra.<sup>1</sup>

<sup>1</sup> Arantxa Urretabizkaia. 2013. «Euskararen erraldoiak». *Passion for Knowledge Quantum 13*, Donostia, Irailak 30-urriak 6.

Sarasolaren datuek frogatzen dute urte gutxitan euskara batua nagusitu egin zela idazleen artean. Berdintsu gertatu zen gainerako kultur eragile nagusien artean, are ikastolen Federazioan. Liskarra, ordea, ez zen baretu. Batasunaren kontrakoeak, «H»a ikurtzat hartuta, ez zuten gelditu batasunaren aldekoen kontrako ehiza.

Berehala, eztabaidak kutsu politikoa hartu zuen: ezkertiarrek batasunaren alde, eskuinekoak, kontra. Aski zen batasunaren aldeko jarrera plazaratzea komunista epitetoa jasotzeko, halakoak gizartearen antolamenduari buruz zuen eredia edozein izanda ere.

Zaila gerta daiteke, gaurtik begiratuta, gertatutakoa ulertzea, batez ere ez delako nahikoa aztertu euskararen batasunaren prozesu mingarri hura. Batasunaren aldeko batzuk, Aresti edo Txillardegi, adibidez, ezkerrean koka zitezkeen, baldin eta ezkerria oso modu zabalean ulertzen badugu eta berdin haien inguruko gazte batzuk. Adinari buruz, berriz, batasunaren kontrako asko ez ziren gazteak, baina ezta Mitxelena edo Aresti bera ere.

Tirabira horretan jardun genuen urtetan. Batasunak nekez egiten zuen aurrera, baina aurrera egiten zuen. 1982an jaso zuen euskara batuak azken bultzada erabakigarria, hain zuzen, Garaikotxea buru zuen Jaurlaritzak euskara batuaren aldeko hautua egin zuenean. Urte horretan, Pedro Miguel Etxenike hezkuntza sailaren buru zela, Jaurlaritzak, etxetik zetozkion ekaitza guztiei aurre eginez, ebatzi zuen euskara batua zela bide bakarra, baldin eta irakas-kuntza sistema oso bat euskaldundu nahi bagenuen, baldin eta unibertsitate euskaldun bat, hedabide euskaldunak edo literatura bateratu bat lortu nahi bagenuen. Halaxe zioen Euskararen Normalizaziorako legearen 30. artikulua.

Hor bildu ziren hiru indar nagusi: Euskaltzaindiaren zuhurtzia, kultur eragile nagusien bultzada eta Jaurlaritzari zegokion erabaki politikoa. Orduantxe hasi zen euskara batua bere izenondoa galtzen. Laster, euskara izango zen eta kitto.

Eta momentu hartatik aurrera, gure artean gutxitan ikusi dugun fenomeno bat gertatu zen: milaka eta milaka lagun, Euskal Herri osoan, Euskaltzaindiaren esanetara, diziplina harrigarriaz, arauak ikasten, arauak ahal genuen moduan betetzen, gure inguruko hizkuntzetan edozein aldaketa txikik sekulako iskanbila sortzen duen bitartean.

Ibilbide horretan guztian, hasieratik bukaerara, Ibon Sarasola izan zen, niretzat eta beste askorentzat, iparrorratza. Literaturaren inguruan egin genuen topo eta berak, berehala, hizkuntzaren esparrua hautatu zuen.

Gogoan ditut hamaika eztabaida Ibonen eta Arestiren artean, Kintanarekin ere bai, eta apenas ulertzen nituen beraien argudioak. Eztabaida horretatik sortu zen *Batasunaren Kutxa*, batuaren lehen hiztegia. Nik gidari lanak egiten nituen eta zerbait ikasten ahalegintzen nintzen. Erabaki nuen nire zeregina Euskaltzaindiaren arauak betetzea zela, ez horiei buruzko eztabaidetan sartzea.

Ordurako hasia zen handitzen euskalgintzak Ibon Sarasolarekin duen zorra. Handik aurrera ez zuen inguruak laupabost ikasle izango, milaka baizik.

### **Aipamenak**

Urretabizkaia, Arantxa. 2013. «Euskararen erraldoiak». *Passion for Knowledge Quantum 13*. Donostia, Irailak 30-urriak 6.